



TPV Multidibisa (DCC)

Kutxabank TPVaren bidez, atzerriko bezeroei euren herrialdeko dibisan ordaintzeko aukera eskaini ahal diezu. Funtzionaltasun horrekin, dibisetan ordaindutako salerosketetarako deskontu-tasa txikiagoa eduki ahal izango duzu. Eragiketa hau Visa eta Mastercard txartelekin baino ezin da egin.

FUNTZIONAMENDUA



TPV-ak txartela eurotan jaulki ez dela eta DCCren bidez salerosketak egin daitezkeela ikusten du.



Terminalak eurotan edo txartelaren jatorrizko dibisan (DCC) ordaintzeko aukera eskaintzen dio zure bezeroari. Gainera, salerosketaren kostuaren berri ematen du (bai komisioa bai trukaneurria).



Jatorrizko dibisan ordaintzea erabakitzen badu, zure bezeroak izenpetu behar duen tiketean, dibisaren arabera zenbatekoarekin batera, ezarritako komisioa eta trukaneurria agertuko dira.

Bezeroentzako onurak:



Hautatzeko aukera:

Bezeroak eurotan ala bere dibisan ordaintzea erabaki dezake. Dibisan egitea erabakitzen badu, salerosketaren datatik hilabeteko epea dauka erabakiz aldatzeko eta eurotan ordaintzeko.




Aurrezkia:

Salerosketak ekartzen duen komisioa txartelaren jaulkitzaileak euroaren eta bere dibisaren arteko bihurketa egiteagatik ezarritakoa baino txikiagoa izaten da.



Gardentasuna:

Zure bezeroak bere bankuak kontuan zordunduko dion zenbateko zehatza ezagutuko du, trukaneurria eta komisioa zehaztuta.



Tiketa nahitaezkoa da:

Arautegiaren arabera, bezeroak TPVetik bere tiketa jasotzeko eskubidea du. Emaiozu!

Saltegiarentzako onurak:



Aurrezkia:

Kostuak aurreztuko dituzu horrelako salerosketetan deskontu-tasa txikiagoa ordaintzean.



Erraz-erraza:

Zerbitzuan alta egitea erraza eta doakoa izateaz gain, ez du eskatzen TPVa aldatzea.



Balio erantsia:

Txartela kobratzeko zerbitzua osatuagoa da eta saltegiaren irudia nabarmentzen du.



Gardentasuna:

DCC salerosketak eurotan likidatzen dira eta modu berezian identifikatuta daude TPVaren funtzionamenduari buruzko txostenetan.